

GAI ZERREDA (2026/01/20)

1. Hautaketa-prozesuen deialdia
2. Prebentzioko ordezkariak
3. Espetxeak: ordutegien zirkularra
4. Zuzenean: neurriak eta langileak
5. Beste gai batzuk

HAUTAKETA-PROZESUEN DEIALDIA

Hautaketa-prozesuen deialdiari dagokionez, Administrazioak jakinarazi du, EAEko Administrazio Orokorreko kidego eta eskaletan sartzeko prozesuen oinarri orokorren zirriborroa sindikatuei bidali ondoren (dokumentuak prozesu guztietarako elementu komunak jasotzen ditu), erabaki da sindikatuei bidaliko zaizkiela oinarri espezifikoak, kronograma batekin batera, bai eta lan-kontratudun langileei dagozkien oinarriak eta hautaketa-prozesuen ondoren lan-poltsa berriak sortzeko proposamena ere. Horiek guztiak negoziatuko dira.

Era berean, hautaketa-prozesuen etapa berri honen planteamendu orokorra azaldu da, eta, sindikatuen ordezkariak egindako kontsulten ondoren, horien helburu nagusiak adierazi dira.

PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK

Prebentzioko ordezkariak dagokienez, jakinarazi da Lan Harremanen Zuzendaritzak egoerari buruz egiten ari zen azterketa juridikoa dagoeneko osatu dela. Dokumentua sindikatuei bidali zitzaien joan den astean, eta sindikatuek beren balorazioak helarazi dizkiote Administrazioari. Ekarpen horiek hurrengo Mahai Sektorialean erabaki bat hartzeko aztertuko dira.

ESPETXEAK: ORDUTEGIEN ZIRKULARRA

Espetxeei dagokienez (ordutegien zirkularra), sindikatuek egindako planteamenduen ondoren, Espetxe Zerbitzuetako zuzendariak adierazi du ezen, eremu honetarako baldintzen akordioa izapidetzean, zirkular horretan jasotako gaiak aztertu zirela. Sindikatuek txandei buruz planteatutako problematikari buruz sailak egindako txostenek adierazten dute gai horiek sakonago aztertu behar direla, baina adierazi da zentroetako langileek egokitzen dituztela egungo txandak.

Egin beharreko azterketa xehatua amaitu ondoren, ondorioak sindikatuei helaraziko zaizkie, balora ditzaten eta gai horretan topaguneak bilatzeko.

ZUZENEAN: NEURRIAK ETA LANGILEAK

Zuzenean: neurriak eta langileak puntuari dagokionez, sindikatuen ekarpenak entzun ondoren, Administrazioak zerbitzua emateari eta langileen baldintzei buruz hartutako neurrien berri eman du, zerbitzu hori hobetzeko zenbait gai konpontzeko hasitako prozesuaren esparruan. Lanean jarraitzen dugu, identifikatutako disfuntzioak ahalik eta lasterren konpon daitezen.

Era berean, irtenbide desberdinak jorratuko dira, bai jendeari arreta emateko guneetan, bai hitzorduen kudeaketan.

BESTE GAI BATZUK

Azkenik, Beste gai batzuk atalean, Administrazioak jakinarazi du **Ibaiondo adingabeen zentroan eguneroko bizitzako online bilerei** buruzko arazoa berrantolatzen ari dela. Sindikatuen ordezkariak eskatu dute kontuan har daitezela bilera horien inguruan hartutako neurriei buruz egin dituzten ekarpenak, eta Administrazioak adierazi du dagokion sailari helaraziko dizkiola ordezkaritza sindikalek egindako oharra, kontuan har ditzan.

Era berean, **lan sindikalari** buruzko puntuari dagokionez (arazoak), Administrazioak adierazi du ordezkaritza sindikalak zerbitzu eta sail batzuekin komunikatzeko adierazitako zailtasunen aurrean, gai horiek sil guztiei helaraziko dizkiela, erantzuna arintzea eta arreta azkarrago ematea ahalbidetuko duten irtenbideak bilatzeko, eskaerak ebazteko denborak bermatuz eta murriztuz. Halaber, Enplegu Publikoaren Sailburuordetza saiatuko da eskaera sindikalei ematen zaien erantzuna arintzen, Tramitaguneren bidez.